

BERMEOKO EUSKARA INDARBERRITZEKO AROA

DIAGNOSTIKOA
2024ko urria



01.

Zer da aroa?

euskara
indarberitzeko

eta euskaldunok
ahaiduntzeko

aro
berri
bat

ZER DA AROA?




**Euskara indarberritzeko eta
euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategiko berria da**

**Gure testuinguru eleaniztunean, euskal
hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen
komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta
justua eraikitzeko helburuz.**

Bermeon euskararen egoera biziberritzeko prozesu bat abiatu dugu **zazpi ardatz** hauen inguruan.

Ardatz estrategiko hauek **hizkuntza-politikaren azken helburuak** zehazten dituzte.



1	GOBERNANTZA	Zeharkakotasuna eta parte-hartze koordinatua bermatu beharko da Bermeoko beharrei lekua egiteko. Herriko esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberritzea.
2	JARRERAK - MOTIBAZIOAK	Bermeotarrek euskararekiko dituzten motibazioei begira jarriko gara: zer da herritar euskaldunek nahi edo behar dutena? Zelan erakarri erdaldunak euskarara? Diskurtsoak ezagutu eta partekatu, entzute aktiboa bermatu.
3	EZAGUTZA - GAITASUNA	Herritarren komunikazio gaitasunean jarriko dugu arreta: datuak aztertuko ditugu.
4	ERABILERA - ELKARRERAGINA	Erabilera kontzeptua zabaldu eta Bermeotarren arteko elkarreraginean gertatzen diren egoera komunikatiboetan jarri nahi dugu begirada: euskara ulertu edota erabiltzeko baldintzak, hizkuntza ohiturak...
5	BERRIKUNTZA	Marko berri honek galdera berriak ekarri ditu eta Bermeorako onuragarri diren irtenbide berriak garatuko ditugu.
6	IKERKETA - SISTEMATIZAZIOA	Prozesuak ikaspen batzuk ekarriko ditu eta horiek aurrera begirako estrategian kontuan hartu beharko dira.
7	KOMUNIKAZIOA - HEDAPENA	Komunikazio eraginkorra lortzeko: norbanakoa, eragile-taldea edo komunitatearen arteko harremanetan eragingo da.

generoa # kultur aniztasuna # motibazioak # gaitasuna # erabilera baldintzak # modu berriak
ikasitakoa bereganatu # harremanak

02.

Diagnostikoa osatzeko metodologia



Prozesu honen bidez, besteak beste, hurrengo ikuspegitan jarri nahi dugu begirada.




INTERSEKZIO NALITATEA

Intersekzionalitatea errealitatearen konplexutasuna irakurtzen lagunduko digun ikuspegia da. Zapalkuntzak eta pribilegioak eta horien arteko gurutzaketak eta elkarreraginak kontuan hartuta, errealitatearen argazki zehatzagoa lortzen laguntzen digu.



EKINTZA KOMUNITARIOA

Ekintza komunitarioa harreman eraikitzaileak sortzean datza. Prozesu honen bidez, harreman horiek sortzeko moduak, sareak eraikitzeko erak eta harremanak bideratzeko formetan arreta jarriko dugu, gizartea eraldatu eta artikulatzeko.



ZE HARLERTASUNA

Euskararen ikuspegiaz gain, beste sail eta sektoreak prozesuan inplikatzeko, plan berriak bestelako ikuspegiak txertatuko ditugu. Hala nola, berdintasun arloa, Immigrazio arloa, Kirola, Arlo sozioekonomikoa eta enplegua...

Diagnosticoa osatzeko informazio iturri ezberdinak erabili ditugu:



UDALEKO INFORMAZIOA

Euskara Zerbitzuko hainbat datu kuantitatibo eta dokumentu aztertu izan dira.

Hala nola, Berbalagun, Euskaraldia, Eingule, Turismo Plana.



HERRITARREN GALDETEGIA

Euskaren erabileraren eta presentziaren inguruko datuak jaso ditugu. Galdetegiak euskaraz bideratu dira eta zabalkundea elkartegintzaren bitartez egin da, prozesuaren lehen fasea ekosistema horrekin lantzea erabaki da-eta. Guztira 136 bermeotarrek erantzun dute galdetegia.



EUSTAT, EAS eta KALE-NEURKETA

Ezagutza-datuak Eustat-eko 2021eko datuak dira, eta erabilerakoak, berriz, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Adierazle Sistematik (EAS) eta Soziolinguistika Klusterrak Bermeon egindako azken kale-neurketatik atera ditugu.

KONTRASTE SAIOA

Diagnostikoaren datuak udal teknikariekin eta ordezkariekin landu ditugu kontraste-saio batean.

Datuak aztertu eta azaldu ondoren, indargune eta hobetzeko gogoeta egin dugu.

Horrez gain, teknikari bakoitzak Aroaren marko estrategikoaren baitako erronken gogoeta egin du, alorrez alor.

PARTE HARTZAILEAK

- Euskara eta hezkuntza zinegotzia
- Berdintasun zinegotzia
- Euskara teknikari-trebatzailea
- Gazteria teknikaria
- Berdintasun teknikaria
- Antolakuntzako teknikaria
- Musika eskolako zuzendaria
- Lanbide Heziketako teknikaria
- Kirol teknikaria
- Kultur teknikaria



03.

Ezagutza eta gaitasuna



BIZTANLEAK (2021)



Biztanleria: biztanleak (2023/01/01)

16.831



65 urteko eta gehiagoko biztanleria:

% (2023/01/01)

23,70




Atzerrian jaioetako biztanleria: %

(2023/01/01)



12,50



Biztanleria adina eta sexuaren arabera .
2023/01/01



Biztanleria jaiolekuaren arabera.
2023/01/01





Euskaldunak: % (2021)

71,45

Euskara ama-hizkuntza: hiztunak
(2021)

6.371




D hizkuntza eredua: matrikulak (2017)

2.593

2 urteko eta gehiagoko biztanleria
euskara-maila orokorraren arabera

Ehunekoa




EZAGUTZA

% 71
euskaldunak


% 15
euskaldun
hartzaileak

%14
erdaldun
elebakarrak

Ama hizkuntza sexuaren arabera



Etxeko hizkuntza sexuaren arabera




aroa

14.475 biztanlek
euskara ulertzeko
gaitasuna du. Generoari
erreparatuz, ama
hizkuntzari dagokionez
ez dago alde
nabarmenik. Baina
emakume gehiagok
daukate euskara etxeko
hizkuntzatzat.






Hizkuntza gaitasunaren bilakaera




Euskara-gaitasunaren bilakaerak beheranzko joera dauka. Gaztelaniazko joera goranzkoa da.




2 urteko eta gehiagoko biztanleria etxeko hizkuntzaren eta sexuaren arabera



Zenbat urte dauzkazu?




Sexu / generoa:




Galdetegia erantzun duten herritarren %73a 35-54 urte bitartekoa da, gazte eta nagusien partaidetza ez da oso esanguratsua. Generoari erreparatuz emakumeen parte hartzea %75a da.



Zein da zure egungo egoera?




Zenbat hizkuntza egiten duzu berba?



Galdetegia euskaraz bideratu denez, erantzun duen gehiengoa euskal hiztuna da. Aipatzekoa da %99 eleaniztuna dela.



Zenbat urte daramatzazu Bermeon?




Galdetegia erantzun duten herritar gehienak 10 urte baino gehiago daramate herrian.

Jasotako erantzunetatik 5ek bakarrik daramatzate 10 urte baino gutxiago.




Ze ikasketa maila daukazu?



4 pertsonetatik 3k goi-mailako ikasketak dauzkate.



Euskararen komunitatearen parte sentitzen al zara?



Zer pertsona edo talde lotzen dituzu euskararen komunitatearekin?

Bermeon talde eta pertsona asko lotzen dira euskararen komunitatearekin.

Askotariko erantzunak izan arren, badaude behin baino gehiagotan aipatu diren batzuk:

Bermeoko Udala

Euskaltegiak

Ikastetxeak

Alkartasuna Dantza Taldea

Zenbait alderdi politiko

Erraldoien konpartsa

Berbalagun


Josu Unanue

Ilaski Serrano

...




Bermeoko talde / elkarte / erakunde baten parte hartzen al duzu?



Alkartasun Dantza Taldea
Xixili Gimnasia Erritmiko Taldea
Politikagintza
Sindikatura
Antzerki Taldea
Tanborrada
Eskolako familia elkarte
Artza pilota taldea
Bermeoko Mugimendu Feminista
Bermeoko Futbol Taldea
Izaro Abesbatza
Barrueta Elkartea
Urdaibai Eskubaloia Taldea
Ernai Gazte Antolakundea
Txosna Batzordea
Txistulari Taldea
Berton
Komertzioen Elkartea
Irakurle Txokoa
Erraldoi Konpartsa
Ura Gara
Kanta Lorue
Josepa Kale Kale
Euskaraldia
Berba lagun

Euskararen komunitatearen parte al da?




03.

Jarrerak eta motibazioak



Euskara indartzeko ekimenekiko jarrerak




Euskara indartzeko ekimenak oso beharrezkotzat antzematen dira.

Ordea, hauen arrakastaz galdetzean bestelako erantzunak ere badira.




Euskaraz egiteko motibazioak



Euskaraz egiteko motibazioetan galderen arteko erantzunak nahiko parekoak dira, identitatea, inguru hurbila edo euskararekiko ardura izanik arrazoi eta motibazio nagusiak euskaraz hitz egiteko.



Hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruko pertzepzioak



Hizkuntza eta kultura aniztasunaren onurak zalantzak dakartza, ez berriz, hizkuntzen arteko bizikidetza sustatzea. Horretarako, orokorrean, beharrezkotzat jotzen da euskara ez dakitenek euskararen indartze prozesuan parte hartzea.




04.

Erabilera eta
elkarreragina




Kale-erabilera (2021)



Azken 5 urteetan 4 puntutan jaitsi da euskararen erabilera Bermeoko kaleetan.




Kale erabilera sexuaren arabera (2021)



Emakumezkoek gehiago egiten duten euskaraz kaleetan.


Kale erabilera adinaren arabera (2021)



Adinekoak dira euskaraz gehien egiten dutenak. Haurren erabilerak gora egin du eta haurren presentziak euskararen aldeko erag du du nagusiengan.




Hizkuntzen erabilera ibilbidearen arabera (2021)



Eskola inguruko ibilbidean entzuten da gehien euskaraz.




Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera (2011-2021)




Bermeon egindako kale-neurketen arabera, azken hamarkadetan euskararen erabilerak behera egin du kalean.



Erantzun duten pertsonen artean 10tik 6k aitortzen du egunerokotasunean erabiltzen duela euskara. Tabernak eta lan eremua izanik norbanakoek euskara gehiago egiten duten lekua.




Ze hizkuntzatan kontsumitzen dituzu honako hauek nagusiki?



Erantzun duten pertsonen artean musika da euskaraz gehien kontsumitzen dena, egunkarien eta telebistaren kontsumoa ere %50etik gora dago.



Bermeon badaude euskara ikasteko baliabideak, badakizu zeintzuk?



Adingabe etorkinentzako euskara ikasteko programa

Etorkinek euskara ikasteko programak

Helduentzako euskara ikasteko programa

Ahozko euskara lantzeko programa

Euskaltegiak

Berbalagun egitasmoa

Hizkuntz eskola

Udalak langileei zuzendutako baliabideak


Helduentzako hezkuntza (EPA)

Labayru

Berbalagun

...


Euskara ikasteko baliabideak/baldintzak egokiak/nahikoak al dira?



BERMEOKO TURISMO PLANAREN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA (2022)



Bisitarien bilakaera (2018-2021)



	2018	2019	2020	2021
UZTAILA	17.002	9.815	3.236	5.136
ABUZTUA	29.394	15.292	5.011	8.329
GUZTIRA	46.396	25.107	8.247	13.465

Neurriak:

Identitateari lotutako
turismo eskaintza sortu
euskaraz

Azpikontratetan euskara-
ziurtagiridunak lehenetsi

Bermeotar edo inguruko
kontratazioak lehenetsi

...

Bermeoko Turismo Planak izango duen eragina etengabekoa izango da, baina herritarren erabilera-ohituretan eragin handirik ez duela izango kontsideratu da. Zerbitzu turistikoetan baina, eragina izango duela ondorioztatu da.





BERBALAGUN

2022-2023ko edizioan 43 lagunek parte hartu zuten, 5 talde osatu ziren. 2013-2014ko edizioan 76 lagunek parte hartu zuten eta 16 talde osatu ziren.



EUSKARALDIA

2022an 1330 herritarrek parte hartu zuten: 1152 AB eta 178 BP.

(893 emakume, 10 ez-bitar eta 427 gizon).

Guztira 67 entitatek eman zuten izena eta 200 Arigune sortu ziren.



Euskera
ESKOLAK
Etorkin eta
gurasoentzat
2024/25



EUSKARA ESKOLAK

Helduentzako eta
haurrentzako eskoletan
urtero 80 bermeotarrek
parte hartzen dute. 30 heldu
eta 50 ume.



EINGULE

Orohar, 2.480ko
parte-hartzea
egon da.

Juan Lebatzen bideoek 11.260 ikustaldi izan
dute (IG+FB), eta herritarren bideoek 8.368
(YT+IG).



IRAKURLEEN TXOKOA

Azken deialdiak 27 lagun
bildu ditu, inoiz baino
kopuru handiena.

BESTE BATZUK



05.

Galdetegian jasotako oharrak



Badaukazu gehitu nahi duzun honen inguruko bestelako ideia edo ekarpenik?

ar**o**a

2005ean etorri nintzenean euskera kalean barrena entzuten zen, gaur, aldiz, ez da entzuten. Eta ez da etorkin gehiago dagoelako, euskaldunen etxean ze hizkuntza erabiltzen den baino.

Atzerritarrek kalte handia egin dabe.

Helduok umeei euskeraren baloreak eta garrantzia transmititu behar diegu, euren egunerokotasunean eta gustoko duten gaiak aprobetxatuz euskera bultzatzeko.

Nerabeek ez dute euskara erabiltzen lagunartean, ez dira gai. Scout talde euskalduna sortu leike, eta nagusiok eredu izan. Laguntzeko prest nago (Laura)

Bestetik, euskara eremu ez-formaletan (aisialdian, lagun^{en} artean, familian, kirole^{tan}, komunikabideetan...) gehiago erabiltzeko, instituzionalki Bermeo mailan estrategia eta errekur^{tso} berriak behar direla uste dut.

Aisialdiko ekintzak eta kirolak euskeraz gazte eta haurrentzako: arrauna, futbola... Arrakasta daukien kirola erdera hutsez egiten da. Pasa futbol zelaiko entrenamendu eta partiduetatik. Batelen ligan Ondarrua eta Lekeitioko umeak bakarrik egiten dute euskeraz. Bermeotarrak Sestaokoak bezala gaztelera^z.

Erreferente euskaldun gehiago behar dira.

Ez dakitenen artean euskara jakiteak duen garrantzia eta onura barneratu behar da.



Badaukazu gehitu nahi duzun honen inguruko bestelako ideia edo ekarpenik?

Bermeora bizitzera etorri nintzenean, euskaraz hitz egiten nuen kalean, dendetan... Eta gehienek esan zidaten lehenengo esaldian: tu no eres bermeana! Eta gaztelera hitz egiten zidaten.

Orain, zazpi urte eta gero, dana gaztelera hitz egiten dut herrian.

Euskara ez da nire ama hizkuntza eta herri euskaldun batera heldu nintzenean ahalegina egin nuen baina herritarrak izan ziren ahalegin hori porrotera bota zutenak.

Auzokide bileretan euskara lehenetsi beharko zan, berdin da kolarrean bertan egin edo admitratzaileak bideratu. Auzokideak, euren artean nagusiki euskaraz mintzatu arren... bileratan gaztelaniaz egiteko ohitura dago, batez ere pertsona batek euskaraz ez dakienean.

Nagusietan indartu behar da euskera eta laguntza berezia atzerritarantzako.

Bermeon gero eta hizkuntza eta kultura gehiago egotea ona da euskararentzat eta euskal kulturarentzat. Bermeo ez dago prest harrera on bat egiteko beste hizkuntza eta kultura bateko pertsoneri, beraz, hortik hasita euskara kaltetua ikusi daiteke. Aniztasunean dago aberastasuna, baina jakin behar da egiten, zaintzen eta berritzen.



Badaukazu gehitu nahi duzun honen inguruko bestelako ideia edo ekarpenik?

Hizkuntza eta kultura aniztasunak onak dira, baina horretarako guk eman behar diogu euskarari bere tokia, besteek berdin errespetatu dezaten.

Hizkuntzen elkarbizitza aberasgarria bada ere, gizartearentzat, orokorrean, euskarak bizirauteko biztanleriaren gehiengoak erabili beharko luke lehen hizkuntza bezala, hizkuntza globala ez delako eta interneten bidez euskaraz komunikatzeko aukera erakargarri gutxi daudelako.

Gainerako hizkuntza eta kulturak beti ondo etorriak izango dira, baina euskara hizkuntza gutxitua da, eta, geureari eusten ez badiogu, jai daukagu!

Beste kultura eta hizkuntzak errespetatzea oinarria da, nire ustez, geurea errespetatzeko eta indartzeko. Garrantzitsua da besteengan euskararen erabileraren behar izana sortarazten, batez ere nagusiengana.

Euskerak sarriegi edukitzen dau bere idazkeraren zuzentzeak, horrek ikasleengan eragiten dau zuzenean, aurren era batera idazten zena datorren urtean ez da berdin etb etb. Motibazio galtze izan daiteke hizkuntza honekiko. Zuzenki idatzi behar da bai, baina balore handiago litzateke euskera bera hitz egingo balute.

Niri gustako lekidast
Bermiotar txarлак egitea
museoan egoten dizenak
gehienak erderaz esaten die.



Badaukazu gehitu nahi duzun honen inguruko bestelako ideia edo ekarpenik?

Euskera bizteko abiapuntua dakigunak erabiltzea da eta hortik sareak sortzea. Ezin dogu inon inposatu, baina ezta guri ere ezin deuskue inposatu ez erabiltzea. Euskaldunok ezin deusagu hizkuntzari garrantzia kendu. Erabiltzea da koska.

Eskolakoa garrantzitsua badan, are gehiago eskolatik kanpokoak. Zertarako balio dau euskeraz ikastea gero kalera ez bada hizkuntza eroaten? Ez dot gura esan ez danik garrantzitsua euskeraz ikastea, baina nire ustez kalekoan ipini behar dira indar guztiak

Derrigorrezko da elkarbizitza baina horretan hizkuntza gutxituak gureak bezala beti galtzen du, euskerara ekarri behar ditugu beste hizkuntzetako hiztunak, gure komunitateko parte izateko.

Ama hizkuntza euskara ez duten familiei harrera gaztelaniaz egiten zaie, nahiz eta familiek gaztelania ere ez jakin. Ikastetxeetan ere gaztelania barrura arte sartu da adin txikikoen artean, euskara baino, gaztelania ikasten dute lehendabizi.

Lanean sustatu behar dugu euskara, hori ez bada egiten hizkuntza galdu egingo dugu. Lanean pasatzen dugu gure eguneko ordu gehienak.



06.

Ondorioak



EZAGUTZA ETA GAITASUNA

Bermeoko indargunea euskara gaitasuna da, izan ere, herritarren %70a euskalduna da. Gainera, 16.000 biztanletik 14.000ak euskara ulertzeko gaitasuna du.

JARRERAK ETA MOTIBAZIOAK

Euskara bermeotarren identitatearen parte da eta honen biziraupenaren kontzientzia errotua dago. Era berean, Bermeon euskararen erabilera alor emozional batekin lotzen da.

ERABILERA ETA ELKARRERAGINA

Udal testuinguruari dagokionez, azpimarragarria da udal euskalduna dela Bermeokoa, eta euskara ikasteko hainbat baliabide sustatzen dituela.

Udalerriko testuinguruari dagokionez, eragile antolatuen sarea, oro har, euskara komunitatearen parte sentitzea positiboa da. Elkartegintzan dagoen euskararen erabilera indargunetzat hartu da.



EZAGUTZA ETA GAITASUNA

Bermeotarren ama-hizkuntza, hein handi batean, ez da euskara. Egun 6000 pertsonak dute euskara ama-hizkuntzatzat eta alor honetan hobetzeko tarte handia dagoela ondorioztatu da. Kale-erabileran beheranzko joera dago, bereziki 15-24 urtekoen artean. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaerak ere beheranzko joera dauka.

JARRERAK ETA MOTIBAZIOAK

Herritarren pertzepzioen arabera, udalak euskara sustatzeko antolatutako ekimenak ez dira arrakastatsuak. Ume eta gazteentzako erreferenteak falta direla aipatu da. Herritarren artean aurreiritziak daude. Ahalduntzea, sentsibilizazioa, autokritika... dira besteak beste, hobetzekoak.

ERABILERA ETA ELKARRERAGINA

Hizkuntza-aniztasunari dagokionez, hizkuntzak kudeatzeko ereduari erreparatu behar zaiola aipatu da. Euskara indartzeko ekimen berrien beharra dago, bereziki, aisialdian erabilera sustatzeko. Eingule edo euskal musika erreferente onak izan daitezke. Bestalde, Berbalagun ekimenean parte hartzea gero eta baxuagoa izatearen arrazoiak aztertzea komeni da.

Elkartegintzan Kirol arloko eta eskolaz kanpoko ekimen/elkarteetan erabilera txikia del aipatu da.

Bermeotarra eta batueraren arteko zubiak lantzea komeni da.



BESTELAKO ONDORIO BATZUK

PARTE-HARTZEA

Gizonen eta gazteen parte-hartzea oso baxua izan da, galdetegiaren bitartez ez da posible izan pertsona horiengana iristea. Galdetegia euskaraz egin da eta jakin badakigu ez duela erantzun posibleen unibertso osoa ordezkatzeko .

ERABILERA

Erabilera datu orokorretan beherezko joera dagoen arren, badago kezka berezia sor dezakeen adin tarte bat. Izan ere, 15-24 adin tarteak beherakada handiena dauka, batetik bestera 30 puntuko aldea egonik.

JARRERAK ETA MOTIBAZIOAK

Euskara indarberritzeko ekimenak garrantzitsutzat jotzen diren arren, hauen arrakasta ezbaian dago.

Bermeon dagoen hizkuntza eta kultura aniztasuna lantzea positiboki baloratzen da, baina aldi berean euskarekiko mehatxu gisa antzematen da. Beraz, eztabaida gaia izan daiteke.

BERDINTASUNA

Emakume ezberdinen integratzeorako hizkuntza tresna moduan erabiltzen jarraitzea.

Sailen arteko elkarlana bultzatzen jarraitzea, horretarako tarteak aurreikusiz.

GAZTERIA

Gazteekin gauden gunetan euskara izatea komunikazio hizkuntza: ludoteka, gazteleku, jarduerak...

Aisialdia euskararekin lotzea eta erreferenteak izatea.

KULTURA

Euskararen garrantzia nabarmentzea, adin guztientzako eskaintza erakargarria proposatuz. Batuaz, bizkaieraz, bermeotarrez... denak dira onak, ulertzeko ahalegina sustatu behar da.

KIROLA: Euskara integratzeko ezinbesteko tresna dela sustatzea. Etorri berriei dagokionez, plano ezberdinetan lan egitea, gazteleradunengan bereziki.

LANBIDE HEZIKETA

Ikasle euskaldunekin
euskarazko harremanei
eustea eta ez
dakitenengan gogoa
piztea.

ONGIZATEA

Oinarrizko zerbitzuetan alor honi
dagokionez zer eskaini
dezakegun aztertzea.

MUSIKA-ESKOLA

Irakasleek eskolatik haratago
euskararen erabileran daukaten
inpaktuaren lanketa sustatzea.

ANTOLAKUNTZA

Euskaldunengandik
haratago, beste
errealitate
soziolinguistikoa
daukaten herritarrek gai
honi buruz daukaten
pertzepzioa ezagutzea,
non eragin behar den
jakiteko.



www.elhuyar.eus